

Herri Musikaren 2. jardunaldiak

HERRI MUSIKA ETA HERRI DANTZA

Herri Musikaren inguruko gaietako buruko azterketak eta gogoetak egiteko sortu zen "Herri Musika Jardunaldiak" izeneko egitasmoa eta 2002ko azaroan Bertsozale Elkarteak eta Oiartzungo Bertso Eskolarekin elkarlanean "Herri Musika-Bertsolaritza" gai harturik 1. Jardunaldiak ospatu genituen. Horien balorazio baikorak bultzatu gaitu bide horretatik jarraitzera eta aurten 2. edizioa antolatuzera.

Hasieran esaten genuen bezala, urtez urte gai monografikoa aurkeztu eta jorratuko nahi dugu. Horrela, Herri Musikaren Jardunaldien 2. edizio honetarako HERRI MUSIKA ETA HERRI DANTZA izeneko gaia aukeratu dugu. EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA eta HERRI MUSIKAREN TXOKOAK antolatuz, Oiartzunen, 2003-11-29 eta 30ean ospatuko ditugu.

Herri Musika eta herri dantza gure herri kulturaren bi arlo hauek

askotan bat eginik agertzen dira eta antzeko egoera edo problematikari aurre egin behar diete. Batetik, dantzarietako askotan musikajole egokiak behar izaten dituzte plazan eta ezin aurkiturik ibiltzen dira; musikajoleak aldiz, askotan bakar bakarrik aritzen dira dantzarako jotzen plaza horietan, eta dantzariak ez. Bestetik, dantza taldeek dituzten arazoetan, askotan euren errepertorioa osatu eta eman ahal izateko behar diren musikarien falta iza-



ten da nagusienetakoa.

Aukeratutako gaia egungoa, garrantzitsua eta kezka eragiten duena da hortaz, bai herri musikan eta herri dantzan ere.

Egitaraua osatzerakoan dantzari eta musikarien ikuspuntuak lantzeko bi aldeetako adituen laguntza izango dugu, bertakoena nahiz kanpokoena. Bestalde, edonork gai honi buruzko bere proposamen edo iritzia aurkezteko aukera ere izango da. Ez ditugu alde teorikoak bakarrik landu nahi eta alde praktikoei ere tarte egingo diegu antolatutako tailerretan.

Beraz, guztion interesarako eta mesederako izango delakoan, denen artean gogoeta egiteko aukera eskeintzen dugu eta deialdi honek bi arloetako zaleen artean merezi duen arrakasta izango duela espero dugu.

Hona bada, jardunaldi hauetarako antolatu dugun egitaraua:

Azaroak 29, larunbata

- **Mintegia**
- o 10:00, Auzokalten (Ergoingo auzo elkartean) hitzaldiak: Iñaki Irigoien, Jose Inazio Ansorena eta Elías Martínez.
- o 12:00, **mahai ingurua**
- o 16:00, **komunikazioen aurkezpena eta mahai ingurua**
- o 18:30, **Herri Musikaren Txokora bisita**
- **Jaialdia:** Herri dantzaera ezberdinak
- o 19:30, Oiartzungo Elorsoro polikiroldegian.
- o Zuberoka, Iurreta eta Valladolideko dantzari eta musikariak.
- o 22:00, Gurutze auzoko Toki-Alai jatetxean, **herri-dantza afaria**.

Azaroak 30, igandea

- **Tailerra**
- o 10:30, Auzokalten, dantza maisuei, herri soinu-tresna irakasleei, herri musika eta dantza joleei, dantzarietako... eskeinia.
- **Erromeria**
- o 17:00etatik aurrera, Oiartzungo Doneztebe plazan. Musika jotzen: Oiartzungo Bertso eta Trikitixa Eskolak, Lartaun txistulari taldea, Valladolideko taldea, Gasteizko Udala Herri Musika Eskolako Albokariak, Roberto eta Kepa Bizkaiko trikitilariak, Alkarkide Txaranga eta Iruñako Gaiteroak.

KONTZERTUAK HM Txokoan

Udazkeneko kontzertua

2003ko urriaren 18an - arratsaldeko 6,30tan - HM Txokoan

Manuel 7 urterekin hasi zen soinua ikasten bere gisa aitaren soinu diatonikoarekin. 14 urte zituela trikitixa erosi omen zuen eta 18 urte bete zituenean pianozko akordeoia hartu, azken bost urte hauetan botoidun akordeoi kromatikoari ere heldu diolarik. Garai batean, Hondarribiako Santiagotxo auzoan jotzen zuen jaiero gazteen bileretan. Eusebio berriz, 16 urte zituela hasi zen pandero jotzen Irungo Euskal Jaietan, Lopetegi soinu-jolea lagun zuela. Gurasoek sagardotegia zuten, eta han aritzen omen zen, panderoarekin ez bazen xaramelekin edo goilareekin.

Biek, Manuelek eta Eusebiok, 45 urte badaramatzate elkarrekin jotzen, Irun eta Hondarribiako festa eta erromeriatan bezala Lapurdi aldean ere bai maiz (Hendaia,

MANUEL SORZABAL eta EUSEBIO ALKAIN (Hondarribia)

Manuel eta Eusebio, hodarribitarrak ditugu biak, bata 1935.ean jaioa eta 1933.ean bestea. Gaztetan hasi ziren musika jotzen.



Baiona, Mugerre, Arrangoitze,...). Erromeriez gainera, makina bat ezkontza ere jarriak dituzte dantzan.

Errepertorio zabala du bikote honek, plaza dantzak izan direnak bereziki, eta horien erakusgarri bat eskeiniko digute: fandangoak, arin arinak, biribilketak, jotak, jauziak,

KONTZERTU ONDOREN AFARIA

Eta aurreko kontzertuetan egin genuen bezala, kontzertu ondoren musikariek afaltzeko eta elkarrekin kantatzeko, jotzeko eta dantzatzeko aukera emanez, Auzokalte Elkartean (Herri Musikarien Txokoaren ondoan) afaria antolatu dugu. Bertan egon nahi izan ezker nahikoa izango da urriaren 14a baino lehenago gurekin harremanetan jartzea eta izen ematea. Ah, prezioa 12 ¤ bakarrik. Tokia mugatua dagoenez, interesaturik bazaude egin zure eskaera lehenbait lehen.





DIEGO ESCOLANO, CAROLINA IBOR ETA ÚRSULA SOLAZ (Aragoi)

Talde hau osatzen dutenek bide luzea egin dute Aragoiko herri musikan. Badira hamar urte baino gehiago landa ikerketan dihardutela. Diego Escolano bestalde, "Escuelas Comarcales de Música Tradicional de la Diputación Provincial de Zaragoza" direlakoetan irakasle ari da, eta interprete gisa zenbait talde-

Zazpi urte paseak daramatzate Teruel probintzian musika eta literatura herrikoia biltzen, Maestrazgo eta Gúdar mendizerratan bereziki. Oiartzungo

kontzertu honetan lurralde hauetan ikasi ahal izan dituzten pieza batzuk eskeiniko dituzte, eta horiekin batera Aragoiko gainerako lurraldeetan barrena bildutako beste batzuk. Aragoiko herri musikaren ikuspegi ahalik eta zabalena erakustea dute

asmo, musika tresna eta jenero ezberdinak bide lagun. Hortaz, egitarauan lanerako kantuak, dantza aldaerak ("mudanzas de dance"), albadak, jotak, boleroak eta segidillak, nahiz dianak edo prozesiotako joerak bildu dituzte.

Talde honen partaideak hauexek dira:

Diego Escolano Gracia: gaita, gaita de boto, txiflo eta salterioa, gitarra, gitarroa, lautea eta ahotsa.

Carolina Ibor Monesma: ahotsa, pandereta eta gitarra.

Úrsula Solaz Cañada: danborra, tempan, pandereta, pitoak, gitarra eta ahotsa.



Herri Musikaren Txokoaren presentzia Mexiko aldean.

UNESCOk babestutako ISME erakundeak bultzaturik eta "Escuela Nacional de Música de la Universidad Nacional Autónoma de México"k antolatuturik, 2003ko abuztuaren 11tik 15era México D. F. hirian "IV Encuentro Latinoamericano de Educación Musical" ospatu zen.

Bertara Herri Musikaren Txokoaren zuzendaria den Juan Mari Beltran gonbidatu zuten, topaketa honetako "Conferencias Magistrales" ataleko 3 hitzaldietako bat, "La iniciación musical en la cultura popular", eskein zezan. Hitzaldi hau argitaratzear dagoen Topaketako liburuan agertuko da. Honetaz gain, hots jostailuei buruzko tailer bat eta "Euskal herri musika eta soinu-tresnak" izeneko bi kontzertu ere eman zituen.

Bestalde, aukera paregabea suertatu zen lurralde horietan gure H. M. Txokoaren izena eta izaera zabaltzeko, partehartzaileen artean ziren ehundaka musika adituren artean.

Erakusketa Mugikorra Beiren

Abuztuaren 9 eta 16 artean antolatu zen Beiren, bertako "IV Feria de la Artesanía"

BISITARI KOPURUA

Udan zehar (ekaina, uztaila eta abuztuaren): etorritako bisitari kopurua:

323

Bisitari kopurua iraila arte:
3.474

Silbestre Elezkano "Txilibrin" Igorreko alboka maisu zaharra 2003ko uztailaren 30ean hil zen.

Txilibrin Igorreko Elezkano albokari familia ospetsuko azken albokaria izan da. Igorren jaio zen 1912ko abuztuaren 15ean, eta hamar urte zituela, Joxe Anton, Bernardo, Tiburzio, Joxe eta Benito anaiekin batera alboka eta panderoa ikasten hasi zen albokari ona zen bere osaba Ignazio Uribarriren eskutik. Hamabost urterako erromeriatan jotzen aritzen zen Faxio Arandia soinujolea eta "Txato Castilokoa" panderojolearekin, nahiz eta garai haietan ospe handiagoa eduki eta ezagunagoa izan jota dantzari gisa.

Albokari honen musika Euskal Herriko bazter guztietan entzun izan da eta baita Europa eta Ameriketako toki askotan ere. Txilibrin izan da albokari belaunaldi berriaren eredu bat eta bere bitartez ezagutu ditugu aurreko albokariaren errepertorio eta joera aberatsak.

Aurtengo "Albokariaren Hernaniko 10. Topaketa" Silbestre Elezkano "Txilibrin" Igorreko albokariaren omenez eta oroimenez antolatu da, 2003ko irailaren 27 eta 28an.



HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax (9) 43 49 35 78

herrimusika@herrimusika.org // www.herrimusika.org

